

LUISA CARNÉS

Hamahiru ipuin

Itzulpena: Danele Sarriugarte



HAMAHIRU IPUIN


Narratiba, 142



Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo adaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

Lan honen itzulpenak Espainiako Kultura eta Kirol Ministerioaren laguntza jaso du.



1. argitalpena: 2022ko irailean

Jatorrizko izenburua: *Trece Cuentos (1931-1963)*

Maketazioa: Erein

© Azaleko argazkia: Javier Osuna

© Luisa Camés

© Hoja de Lata Editorial S. L., 2017

© Itzulpenarena: Danele Sarriugarte

© EREIN. Donostia 2022

ISBN: 978-84-9109-646-7

L. G.: D 1049-2022

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus



Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Luisa Carnés

HAMAHIRU IPUIN

Itzulpena

Danele Sarriugarte



EDITOREAREN OHARRA

Amak ez zidan inoiz irakurgairik inposatu, eta asko dakienaren segurtasunaz mintzatzeko ohitura zuen. Kasu egiten nion nik horregatik. Haren eskutik ezagutu nuen Luisa Carnés. Ezezaguna zitzaidan izen horren aipamen hutsa nahikoa izan zen, duela bi urte, Iruñeko liburu-denda batera abiatzeko.

Berehala aurkitu nuen C letraren apalategian. Aurretik Interneten egin nuen bilaketa azkarrean, *Tea rooms: Mujeres obreras* liburua agertu zitzaidan zerrendako lehen tokian (Hoja de Lata argitaletxeak berrargitaratua), idazlearen nobelarik ezagunena, antza. Liburu-dendan, aldiz, *Trece cuentos (1931-1963)* baino ez zeukaten, hau ere Hoja de Lata-ren eskutik argitaratua. Etxera iritsi bezain pronto heldu nion haren ipuinen lehenengo antologia hau irakurtzeari. Carnés-en mundua irentsi nuen haginkada bakarrean. Eta hark ni irentsi ninduen. Gogo asebeterik, jakin-mina egarritu zidan: Nor da emakume hau?

Luisa Carnés Madrilen jaio zen, 1905ean, kazetaria eta idazlea izan zen, langile-klaseko familia batean hazitakoa. Oso gaztetatik hasi zen idazten; hiru eleberri eta zenbait narrazio eman zituen argitara Espainiako Gerra Zibila piztu aurretik. Alabaina, errepublikarrak garaitu zituztenean, Mexikora erbesteratu zen, 1939an. Eskuetan, larruzko diru-zorrot bat baino ez, eta, bertan, idatzitako ipuin batzuen originalak gorde zituen, mekanografiatuta eta eskuz zuzenduta, atzean

utzitako sarraskitik salbu. Harekin batera ihesaldian eraman zituen ipuin haiei, Mexikon idatzi zituenak batu zitzaizkien. Liburu honetan daukazue horiek denak, Carnés familiak berreskuratu zituenak hain zuzen ere.

Kronologikoki, lau ataletan bana daitezke ipuinok: Errepublika garaikoak («Bikiak», «Emakume itsusia» eta «[Olibondoak]»), gerra eta gerraostekoak («Etxean», «Salataria» eta «Iparrorratzik gabe»), Mexikori buruzkoak («Familiako albuma», «Mulatoa» eta «Atezaina») eta nazioarteko gaiak lantzen dituztenak («Emakume ereilearen unea», «Akelarre» eta «Smith jaun-andreak»). Horiez gain, «Tranbian» izeneko ipuina topatuko du irakurleak bilduma honetan, 1931n Madrilgo *La Voz* egunkarian argitaratu zuena.

Editore-lanetan hasi eta berehala erabaki nuen Carnés-en ipuinak euskarara ekarri nahi nituela; euskaraz imajinatu nuelako haren ahotsa –kadentzia, tonua–, euskarari ere eman behar zitzaiolako orrialde horietan topatu nuena –gerratik ihes egiten duten preso eta erbesteratuak, errepresio frankista, langileen lan-baldintzak, Espainiako familien egoera sozio-ekonomikoa, emakume presoen borroka, eta mugaz bestaldeko Estatu Batuetako arraza-segregazioa, adibidez–; Espainiako eta erbestean bizi izandako garai jakin bateko testigantza zuzena, alegia. Errealismo sozial handiko ipuinak iritsi zaizkigu Carnés-en ahotsetik.

Kontalari bikaina da, eta deskribapenak egiten maitatzen ditu. Artifiziorik gabeko ahotsa du Carnés-ek, baina bere estilo zailduak benetan magiko bihurtzen du, indartsua, argia. Ipuinak gogorak dira, islatzen dituen garaiak bezalaxe.

Bere lana zehatza da; hitz oro tentu handiz aukeratu izan balu bezala. Artefaktu bikaina alde guztietatik begiratuta ere.

Idazlea ingurutzen duen isiltasunaren aurrean, haren ahotsaren oihartzuna ahalik eta hizkuntza gehienetan jasotzea amets bat litzateke; zer esanik ez euskaraz. Hain zuzen ere, taxuz aritu da lan horretan Danele Sarriugarte itzul-tzailea. Carnés-Sarriugarte tandem: biek ala biek elkar ezin hobeto ulertu dute, eta emaitza ikusgarria da.

Nik hamahiru ipuin hauek irakurtzeko gonbita egingo dizuet soilik. Amak bezala, neuk ere ez dizuet ezer inposatuko. Inork ez dizue inoiz olibondoei buruz hain modu ederrean hitz egingo.

Uxue Razquin Olazarán

TRANBIAN

[1931]

Tranbian sarturik bikote gaztea, lurrin exotiko batek bete du giroa, eta moja baten jakin-mina erakarri: Sol-Ventas kalamastrako bidaiari bakarra.

Gaztea da. Bekain beltz zabalak ditu. Kokotsean, eba-kiondo txiki bat, elutxa graziosoa irudi. Begi handi, biribil, leloekin kanpora begiratzen du lausoki; ez du uzten une batez ere susper dezaten balkoietako zuloek, eraikintzar zuri, gris edo gorriek, haietako pertsiana berde zein horixkek.

Toles ugarietikiko gonaren azpian ageri zaizkio boten punta zapalak. Artileki beltzezko mahukaburu sakonetan hondoratzen dira eskuak.

Mugiezin. Bikote gaztearen agerpenak baino ez ditu pixka bat lasaitu haren ezpain larriak; bikote gazteak baino ez du lortu haren begi biribil leloetako betazalak inarrotea.

Autoaren mutur batean eseri dira, gorputzak gertu-gertu; emakumeak besoa pasatu dio gizonari harenaren azpitik, eta samurtasunez estutu du.

Begiak desbideratu ditu mojak atsekabe-keinu nabarmenez, eta kobratzaileari zuzendu dizkio ostera, zeina zigarro bat biltzen ari baita plataforman, hatz labur traketsekin. Baina berehala finkatu ditu berriro bikote gaztean, elkarri begira ari dira isil-isilik, eta kezka bitxi batek hartu du pixkanaka: irribarre egitera bultzatzen du. Heldu dio hatz

biribilekin abituaren toles ugarietako bati, eta indarrez bihurritu du. Ondoren, bere bota zatarren puntei erreparatu, eta gona astunaren azpian ezkutatu ditu. Gizonari begira jarri da gero: haren begi txilotuek laztan irudikatueta biltzen dute emakumea; haren esku mehe finek maitalearen esku biluzia bilatzen dute, bere besoaren gainean abandonatua.

Hain daude gertu, lotzera bultzatzen dituen bertigo-sentsazio berak bereizten baititu tupustean, eta zorura begiratzen dute biek tinko –txartel zimurtu mordoxka batek koloreztatua dago–, hatzak irmo estutzeaz batera.

«Ene jainkoa, elkar musukatuko ditene gainera!», pentsatu du mojak, eta bere arrosarioaren bola beltzak zenbatzeari ekin dio bizkor, bikote gaztearen eraginari ihes egiteko. Baina haren begi tentelek, jakingurak hartuta bat-batean, ez diote obeditzen, eta emakumearen zapata argietan finkatzen dira; haren zangoetan, soineko ilun batez estaliak; haren azazkaletan, gorritz margotuak; eta gizonaren silueta beltzaranean, betileek itzala sortzen baitute haren begi erdi-itxietan.

Mojaren hatz abilak hegan dabilta arrosario-bihien gainean. «Jaungoikoa, hementxe hasiko ditun musuka».

Eta tranbia ez da sekula iristen helmugara: dardarti, kirrinkari, bidera suertatzen zaizkion seinale elektriko gutti-guttien parean geratzen da.

Mojak jada ezin die eutsi bere penitentzia-katearen boleiei, ez daki nora zuzendu begirada lerdo luzea, eta kartel beltzetara bideratzen du: «Ez erre»; kartel urdinetara: «Kape-la merkeak»; kartel gorrietara: «Laxante gorena»; harik eta, azkenean, halabeharrez, bikote gaztean finkatzen duen arte.

«Ene, hemen musuka hasi baietz!».

Sutan dauka bekokia.

«Hemen musuka hasi baietz!».

Baina ez. Gizonak, bat-batean, seinale azkar bat egin baitio tranbia-gidariari, eta ibilgailutik jaitsi dira.

Burua jiratu du mojak, eta ikusi ditu jende-multzoan desagertzen; hasperen egin du, ia dardaraka hasteraino aztoratuta; atera du otoitz-orduen liburu bat poltsikotik eta hasi da bizkor-bizkor mugitzen ezpainak, orrialde alderantzikatuetan tinkaturik begi leloak.

BIKIAK

[1932]

Bietako bat bestea baino hiru minutu lehenago jaio zen, eta denbora-tarte horrek nagusiaren kategoria eman zion une eskas batzuk beranduago jaiotako anaiaren aurrean.

Bikirik zaharrena, ez dakigu zergatik, eskuineko hanka ezkerrekoa baino pixka bat laburragoa zuela etorri zen mundu honetara (bi gizon mundura botatzeak dakarren ahaleginak jota hil zen ama, eta artatu zuen sendagilearen izena galdu egin zen Pérez González familiaren oroitzapen-nebulosan, espainiar klase ertaineko sustrai zintzo horretako ki-deak baitziren bikiak).

Herrentasuna izan zen bi anaiak beren bizialdi luzean lotu zituen estekarik sendoena. Batera eginda beren lehen urratsak, zango motzarekiko bikiak bertigo iragankor bat jasan zuen oreka-faltaren poderioz, eta anaiari heldu zion halabeharrez; arbel gogorreko zorura erori ziren biak, aldi berean umeldu ziren negarraren negarrez, eta koskor arrosakara bana agertu zitzaien bekokian.

Istripu minimo horrek ezarri zuen beren biki-bizitzen antzekotasunaren abiapuntua.

Biribil hazi ziren. Bi bola arrosa, elkarrekin jiraka; anaia nagusiaren eskuineko besoak lotzen zituen, herrena orekatzea bilatzen baitzuen anaia hiru minutu gazteagoaren sorbaldan bermatuz.

Gerora, auzoko eskola bateko koadrotxo samurrera arri-matu ziren. Aurrenekoetakoak izaten ziren gelara iristen, eta neurri berean ziren jatorrak ikaskideekin eta esanekoak maisu jaunaren aurrean.

Baina a ze lanak irakasleak izan zituenak bikiek lezioa hurrenez hurren esan zezaten! Izan ere, irakasleak Pérez González izena esaten zuenean, bikiek –anaia nagusiaren eskuineko besoaren bitartez lotutako siamdar bitxiak–, zutitu, eta aldi berean botatzen baitzuten perpaus gramatikalen arrosario monotonoa.

Ikasturteko lehen egunetan eskola osoak egin zuen barre haien lepotik. Heltzen ziren, hurrengo etsaminetan nota onak lortzeko afanak nahastuta biak ere. Marrekiko jantziak soinean, azkar ibiltzen ziren, jauzi txikiak eginez, erritmo bereko herren bateratuan. Herren egiten baitzuten bi anaiek. Txikia hain moldatu zen bikain nagusiaren akats fisikora, begira zegokienak ezin baitzuen zehatz jakin bietako zein zen egiazko herrena. Egokitzapena hain zen perfektua ezen biki gaztea, bere hatz erakuslearen hegal laburra irakaslearengantz jaso ostean, eskola-aulkitik altxatzen zenean, gelako zoladura alderik alde inarrostean baitzen herrenaren erritmoarekin. Eta, hara, perfekzioaren gailurra: behin, beste bikiaren besoaren eta sorbaldaren falta izan zuenean, pausoak huts egin zion biki osasuntsuari.

Herren-ziurtagiria emakume batek eman zion, eskolara bidean kalean ikusi zituen batean, biak elkarri besotik helduta, zorroa bizkarrean, eta eskuineko zangoekin haize hotza ebakitzen zutela urtarrileko goiz batez.

—Gajoak, herrenak biak!

Orduan, elkarri begiratu zioten hurrek, eta nagusiak gutxigatik ez zion oihu egin emakumeari, keinu goibel okerrarekin: «Aizu, andrea, neu naiz herrena!».

Gazteak hitz egin zuen, ordea, irribarrez:

—Jakina herrenak garela!

Hala, beretzat hartu zuen kaleko naturaltasunak emandako titulua, eta estutu egin zituen beste bikiarekin batzen zuten lotura intimoak.

* * *

Hemezortzi urterekin, doluz jantzitako kandela-bikote soil bat osatzen zuten (Pérez González familian beti baitzen berriki hildako familiarrekin bat).

Aita, Gonzalo Pérez jauna, medikua zen, medikuen semea eta biloba, eta ametsa zuen, noizbait, semeak ere agertuko zirela Madrilgo Sendagileen Elkargoak editaturiko etorkizuneko argazki-erregistro batean, zeinak erakutsiko baitzituen bizarra egindako ehunka aurpegi Espainiako medikuen itxarongeletan eta sendagile espainiarren alargun guztien jangela azalare egosiz epelduetan.

San Carloseko fakultatean ikasten zuten bikiak, eta medikuntza-ikasleak baino gehiago seminaristak ziruditen, argizari hauskorren itxura harekin, feltro beltzezko kapela koskatuek erditik zatitzen zizkietela bekoki gardenak, eta ezkerreko besoan azpian dohatsuki zanpaturik zeramatzatela liburuak.

Batere zerikusirik ez zuten algaraz eta hitz argiz Atotxa kaleko goiz alegrak brodatzen zituzten gazte oihulariekin,

pattarraren eta Lorategi Botanikoko flora medizinalaren usainpean.

Hamar urte lehenago eskolan gertatu bezala, irri eutsien zalapartatxo bat hedatu zen Medikuntza Fakultateko ikasgeletan agertu zirenean.

—Barraka batetik ihes egindako argizarizko figurak dirudite.

—Ez, hobeto esanda, musika-kutxa zahar batetik eroritako panpina erromantikoak dira, eta soinean dute, oraindik ere, nota amaitu gabearen oihartzuna eta barruan luzaz gorde dituen kutxatzarraren naftalina-kiratsa.

—Egoki askoak lirateke Westminster dorreko erlojutik askaturiko panpinarena egiteko ere, minutu-orratzak traba-tu izango zizkien zangoak!

—Egia da, eta herrenak markatuko luke askatu ziren orduaren tiki-taka.

Denborak ahanzturaren eskuila pasatu zuen bikien erliebe groteskoaren gainean, eta halako talde-samurtasun bigun batek ordezkatu zuen haien presentziarekin abiatutako iruzkin-korua. Bidea errazten zieten fakultateko harmailetan eta korridoretan. Zigarroak eskaintzen zizkieten, eta beren abenturen narrazio argitsuaren parte egiten.

Dena den, bikiek hutsunea nabaritzen zuten beren horitasun bikoitzaren inguruan. Gainerako ikasleen deiarrek itzali egiten zuten haien ahots-haria. Astindu egiten zituen besteren kemenak, hala nola martxoko haizeak astintzen dituen zuhaitz mengelak, eta are zimelagoak ziruditen Lehoiaren Gainerako igandetako txangoetan azala zaildutako

gazte beltzaranen ondoan; nabarmenago agertzen zen beren larruazalaren limoi garratza.

Gonzalo jaunaren heriotzak bestelako bide batzuetara bultzatu zituen. Atotxa kaleko fakultateko ikasgela soilak atzean utzita, Preciadoseko pisu garai batera joan, eta akademia popular bateko ikasleen zalaparta gorrarekin nahastu ziren.

Medikuak ez, Correosko laguntzaileak izan ziren, oposizioak gaindituta.

Egun berean gainditu zuten azterketa: hain erabili ziztuzten hitz zehatzak, hain erantzun zuten bizkor, ezen epaimahaiak, ezin baitzuen notarik altuena bi oposiziogileren artean banatu, kategoria bana finkatu baitzuen bikietako bakoitzarentzat (estreinako aldiz Estatuko zerbitzuen laguntzaileentzako azterketen historian): lehena eta lehena bis.

* * *

Bakarrik geratu ziren pixkanaka. Desagertu ziren, bat-banaka, Pérez González familiako kideak, eta begizta beltzak azaldu erretratu zaharren ertzetan. Egongela handi bateko paretetan zeuden kokatuta, zeinaren leihoetako panazko gortina berde muskerrek apenas uzten zioten sartzen Huer-tas kaleko argi hotzari.

Prado pasealekutik hurbil bizi ziren, etxetzar zaharkitu batean, moja-eskola baten parean. Sitsak jana zegoen egurrezko zorua, eta hura estaltzen zuten alfonbrek soilgune zabal errauts-koloreak erakusten zituzten. Egutegi zikinak

korridoretan. Bazen sukalde handi bat, zeinetan astiro itzaltzen baitzen ikatzezko bonbilla gorrikara bat, eta bulego bat, zeina alderik alde estaltzen baitzuten margolan gorrotagarri batzuek, Gonzalo jaun defuntuaren erretratu handituak, Espainiako mapak, bihotz baten igeltsuzko behe-erliebeak –zeinari aorta zabaltzen zitzaion azaloren baten antzera–, eta orrialde heze horixkekiko liburu mordo batek.

Zimitzen eta zahartzaroaren usaina zuen leku hark.

Zahartzen ari ziren bikiak ere. Berrogeita bost urte zituzten; pitzatzen hasia zuten limoi garratzezko azala, emakume baten kontaktua ia inoiz gozatu gabea.

Neskame zahar batek zaintzen zituen: jatordu arinak prestatzen, etxeko parasitoak garbitzen, eta mahuka-erdi beltzak pasaratzen zizkien, zeharo higatuta edukitzen baitzituzten Correosko bulego bateko mahaiarekin zeukaten harreman estuagatik.

Goizetan lan egiten zuten eta egonean egoten ziren arratsaldez. Eta, iluntzero, hutsik egin gabe, Huertas kalean behera ikusten ziren Lorategi Botanikorantz bidean, herren bikoitzarekin eta dolu bikoitzarekin, distira egiten, zahar-raren zaharrez, beren gorputzeko gunerik haragitsuenean. Ile urria, almidoiz tentetutako lepo zirpilduan zanpatua, urreztatzen zien eguzkiak, eta distira egiten zieten ahuntz-larruzko botek. Poliki-poliki ibiltzen ziren, beren gizatasunaren kandela zorabiatuarekin trakeski saihestuz Mediodíako geltokitik gora zetorren omnibusa.

Botanikora iritsita, zurezko eserleku berean egokitzen ziren beti, baina hautsa kentzen zioten aurrez, biek aldi berean, beren zapi zuriekin; ondoren, egunkaria atera, eta

erdi bana egiten zituzten orrialdeak, berrogei urte lehenago, jaiegunetan, Gonzalo jaun defuntuaren gustuko egunkari kontserbadorea partekatzen zutenean bezalako ekitatez.

Arrastirian itzultzen ziren, herren bikoitzak karraska egiten ziela botetara itsatsitako hondarrarengatik, ilargia feltro beltzezko kapelen gainetik altxatzen zela, eta piano ikusezin batek kalearen eremu iluna Schuberten *Serenata*ren notekin –herrenka haiek ere– zipriztintzen zuela.

* * *

Hirurogei urte beteta, erretiratu egin zituzten, eta diru-sarrerak murriztu zitzaizkienez, ohiko gastuak txikiagotzea erabaki zuten: uko egin zioten neskame zaharrari, zeinak Pérez Gonzalez familiako guztien begiak itxi baitzituen, eta etxeko zereginetan trebatzen hasi ziren bi-biak.

Ohiko bidea ibiltzen zuten Huertas kalean behera eta, arratsaldero, hautsa astintzen zioten zurezko eserleku bati, Botanikoko zumartxuri baten itzal belusezkoaren babesean. Elkarrekin irakurtzen zuten, elkarrekin letreiatzen zituzten latinez idatzitako kartulina zuhaitzei lotuak. Elkarrekin markatzen zuten minuet-pausoa hurrek oinetara platan-azalak, edo laranjarenak, jaurtitzen zizkietenean, agure agurgarriak pirueta bikoitz inprobisatuan bihurrikatuz ikus-teko desira makurrak hartaratuta.

Zahartzaroak egunetik egunera gehiago batzen zituen. Gerturatu ziren beren arimak eta bilgarriak, laburtu zen beso batetik besterako distantzia, tolestu zen beren gorputzen kandela hauskorra enbor margul bakar bat osatu arte. Gortu

zitzaizkien belarriak eta makaldu begiak, eta horrek halako giro trinko bat ezarri zuen bien inguruan, mundu berezi bat, kolore zein zarata ahulekikoa eta forma lausoekikoa. Mundu hura haientzat bakarrik existitzen zen, eta etxe umela zuen adierazpide zehatz, bere parasito eta dolu-xingolekin. Etxearen barnealdean, alfonbren presio-malgukiak, altzarrien zurak eta gortinen panak moteltzen zuten ahots bikoitza.

Bikiak lasai ederrean ibiltzen ziren etxean hara-hona; kaleak ebatsitako erosotasuna berreskuratzen zuten, eta are samurragoa bilakatzen zitzairen elkarrekiko ternezia. Azken finean, pertsonalitate nabarmenagoa hartzen zuten, gorputz-tasun zehatzagoa, barrutik bezala kanpotik ere.

Izatearen betetasun hark berekin baitzekarren pentsamendurik gordeenak ere gehiago eta modu osoagoan ematea elkarri, hala esan zion behin batean biki nagusiak biki gazteari:

—Elkarrekin bizi dugun bakardade hau, une honetan denik eta konpainiarik onena izanda ere, jasanezina izango duk hemen «geratzen» denarentzat, biotako bat falta denean. —Ihes egin nahi zion «hiltzen denean» esapideari—. Zer gertatuko zaio hemen «geratzen» denari?

—Arrazoa daukak, anaia. Ez genian sekula «horretan» pentsatu.

Hain izan zen leiala eta zehatza beren biki-bizitzen arteko antzekotasuna, ez baitzituen honako ideia honek inoiz zauritu: gerta zitekeen bata bestea baino lehen hiltzea, eta «geratzen» zena babesik eta orekarik gabe uztea betiko.

—Zer gertatuko zaio «geratzen» denari?

Pentsakizun hark etengabe hilduratzen zituen eta, sinestun zintzoak izanik, errezo-sorta bat aletzen zioten gauero Heriotza Onaren Aingeruari, eta erreguka eskatzen, beren ordua iristen zenean, ez zezala, deskuiduan, argi-metxa bat itzaltzeke utzi.

* * *

Ikara areagotu egin zen biki nagusiaren gaitz bat zela kausa. Kexaka hasi zen, albo batek min handia egiten ziola-eta; intziritik intzirira, anaiari galde egiten zion:

—Min handia al daukak?

Ezin baitzuten irudikatu gaixotasunak traizioz zauritzea, eta, nagusiaren oinazeekin batera, gazteak minik ez sentitzea.

—Min handia al daukak, anaia?

Eta garaia baino lehen hiltzeko izuak biltzen zuenez galdera, min alegiazkoz arranguratzeko beharra sentitu zuen beste bikiak:

—Bai... Hara. Hemen... Saihetsean...

Arnasa hartu zuen besteak:

—Hortxe, bai. Orratz bat iltzatuta bahu bezala, ezta?

—Horixe bera.

Anaia gazteak ahalegin eskerga egin behar izan zuen harik eta medikua konbentzitu zuen arte gezurrezko gaitzak «senda» zekizkion, baina hainbeste negar egin zuen, hainbeste erregutu zion, ezen sendagilea, etxetik atera zenean, sinetsita baitzegoen asmo oneko lan bat egiten ari zela mesanotxean bi errezeta utzita.

* * *

Gainditu zuten gaixotasuna, baina heriotza ez-aldiberekoaren ideiak ez zien bizitzen uzten: obsesio bilakatu zitzairen, eta ohiko atsedena aztoratzen zien. Sarritan, bikietako bat esnatu egiten zen ikaraturik, eta ezustean harrapatzen zuen bestea, agonduta. «Bazekiat zer ari haizen pentsatzen –esaten zion–. Gauza bera amestu diat nik, eta sufrimenduak iratzarri naik». «Ez lukek arraroa izango gertatzea... Hirurogeita hamar urte inguru ditiagu». «Baina, “behar den moduan” “gertatuz” gero, ez geniek beldurrik izango... Okerrena bietako bat hemen “geratzea” duk... Jakina, nagusia ni naizenez, neuk behar nitek...», laburbiltzen zuen biki hiru minutu zaharra-goak. «Ez, ezin dik izan...». Beren arteko lotura estuak bata bestea baino luzeago bizitzea ezinezkoa zela iradokitzen zien. Sinetsita zeuden bien arimak aldi berean hegaldatuko zirela, biki nagusiaren eskuineko besotik lotuta, beren bizitzak ere halaxe atxikita egon baitziren ia hirurogeita hamar urtez, eta izugarria iruditzen zitzairen hiru minutuko aldearekin hiltzeko aukera.

* * *

Horrenbeste indartu zen pentsakizun hura, «beren orduari» aurrea hartzea erabaki zuten, haren bila joatea, bidaia elkarrekin egingo zutela bermatzeko. Baina pertsona zentzudunak izanik higuigarria gertatzen zitzaenez inori eragozpenik txikiena sortzea, hil ostean bazen ere, gutun bat idatzi zioten barrutiko epaileari, beren kezken berri emateko eta bien heriotza jakinarazteko, eta beste eskutitz bat igorri zioten atezainari, esateko hari laga zizkiotela oinordetzan altzariak

eta familiako margoak, baita igeltsuzko bihotza ere, azalorre-itxurako aorta eta guzti.

Arazoa konpontzeko, ez ziren oso originalak izan. Suizida arruntak nola, Biaduktuko balaustrada gainera igo ziren, noiz ere hurbiltzen baitira txurrogileak Vistillas lorategiko paisaia argitsura, eta segurtasun-guardiek, berriz, husten baitute zerbitzu-eguneko lehen kopatxoak. Ordu horretantxe, bikiek, eskutik helduta, azken aldiz ebaki zuten haize madrildarra beren herren aldiberekoarekin, eta behin betiko hautsi ziren –limoi garratza eta argizari lehorra– Segovia kaleko harri zorrotzen kontra.